



A.ERANSKINA

Ordezko gaien zerrenda integratzen duten pertsonen egutegia eta orduak

A.1.- Ordezkapenak esleitzea.

Ez dira esleipena aurrez aurre egiteko saioak izango. Ikasturtearen hasierako esleipenak egiteko abuztuan den prozesu informatikoak bukatu ondoren, ondorengo egutegiaren arabera automatizatutako esleitzeko prozesu batean emango dira bete beharreko lanpostuak:

A.2.- Lanpostua aukeratzeko fasean derrigorrean parte hartu behar izateko muga-puntuazioa.

2019ko abuztuaren 27ko 14:00etan Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>) eta irakaslegunea ingurunean argitara emango den puntuazioa izanez gero, ez da derrigorrean lanpostua aukeratzeko fasean parte hartu beharko.

A.3.- Lurralde historikoa eta lanaldi mota aldatzea eskatzeko epea.

Uztailaren 1tik 5ra artekoa, biak barne, izango da lurralde historikoa eta lanaldi mota aldatzea eskatzeko epea. Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>) eskura dagoen formularioan aurkeztu beharko da eskaera.

A.4.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda.

Esleitu beharreko lanpostuen zerrenda 2019ko irailaren 3an, 18:00etatik aurrera eta Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>) eta irakaslegunea ingurunean, emango da argitara.

A.5.- Parte hartzeko eskaera formalizatzeko epea.

2019ko irailaren 3ko 18:00etatik aurrera irekiko da irakaslegunean eskura dagoen eskaera elektronikoa betetzeko epea eta 2019ko irailaren 4eko 18:00etan bukatuko du.

**HEZKUNTZA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

A.6.- Esleitzeari buruzko behin-betiko ebazpena.

Esleitzeari buruzko behin-betiko ebazpena 2019ko irailaren 5an, 18:00etatik aurrera, Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>) eta irakaslegunea ingurunean emango da argitara.

A.7.- Esleitutako lanpostura agertzea.

Selekzionatutako pertsonak irailaren 9an agertu beharko dute esleitutako lanpostura.